

Mikel Garcia Idiakez:

TEKNOLOGIA BURUJABETZA HEZKUNTZAN. GAUR EGUNGO PANORAMA

Lehenik eta behin, azaldu nahi dut segidan egingo dudan deskribapena ez dela nirea, hezkuntza eta teknologia munduan dabilen jendeak kontatzen duena baizik. Argian jaso izan ditugu beraien hitzak, eta oraingoan niri dagokit hitz horiek hona ekartzea.

Eta hezkuntza eta teknologian dabilzanek zer esaten dute? Multinazional teknologikoak, bereziki Microsoft eta Google, bi zirrikitu nagusi ari direla erabiltzen gure ikastetxeetan barruraino sartzeko: batetik administrazioak uzten duen zirrikitua, eta bestetik ikastetxeek eurek jartzen duten alfonbra gorria.

Has gaitezen administrazioetik.

Nafarroako Gobernuak adibidez Googlekin hitzarmena du, beraz Googlen zerbitzuak lehenesten dituela pentsatzekoa da. Eusko Jaurlaritzak harreman historikoa du Microsoftekin, Windows instalatuta dauka bere menpeko erakunde publiko gehien-gehienetan; Euskal Herriko Unibertsitatean ere, emailaren gestioa Microsoftek daramala salatu izan da behin baino gehiagotan. Adibide esanguratsu bat gai honetan: Jaurlaritzak saldu du ordenagailu berriak erosiko dituela eskoletarako eta ordenagailu horiek abiatze duala izango dutela (alegia Windows bai, baina Linux sistema-eragile askea ere bai), gero ikastetxe bakoitzak aukeratu dezan. Errealitatea, ordea, beste bat da: Jaurlaritzak ikastetxeei galdetu die: “Zer nahi duzue, chromebooka ala ordenagailua?”. Eta eskola batzuetatik erantzun dute: “Nahi dugu ordenagailua, Linux sistema-eragile askea izango duena”. Jaurlaritzak horiei esan die kasu horretan duala izango dela abiatzea: “Bale, Linux izango duzue, baina Windows ere bai”. Alegia, Windows bai ala bai eramango dute ordenagailu guztiek.

Dena den, administrazioak enpresa pribatuekin izan ditzakeen interesetatik haratago, sarri aipatzen dena da gai honetan administrazioak estrategia falta duela. Berritzeguneak dira nolabait ikastetxeen eta Jaurlaritzaren artean dauden figurak, irakasleen formaziora bideratuta batez ere, eta Berritzegune nagusian lan egiten duen Txabi Perezek Argian kontatu zigun Berritzeguneetan lantzen dutela nola jorratu beharko litzatekeen teknologia eskoletan, baina gero ez dutela beraiek erabakitzen eskoletan garatu beharreko teknologia. Erabakiak Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordetzan hartzen dira, inongo estrategiarik, inongo perspektibarik eta gai honen aldeko inongo apusturik egin gabe. Eta apusturik egiten ez dela garbi geratzen da bideratzen diren baliabidetan: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Berritzeguneetan, duela 25 urte zeuden 20 IKT aholkulari, 20 aholkulari EAE osoko ikastetxeei teknologian formatzeko eta teknologiaz aholkatzeko; bada, orain daude... 20 IKT aholkulari. 25 urte pasa dira, urteotan eman den iraultza teknologikoa nabarmena da, baina baliabide pertsonalak berdinak dira.

Zerbait aldatu da pandemia garaian? Zeren irakaskuntza teknologikoa oso presente dugu garaiotan, egun batetik bestera erabat digitalizatu genuen irakaskuntza, konfinamendu sasoian denak etxetik ari ziren eskola ematen. Bada, administrazioak ez zuen formazio teknologikorako eta abarretarako inongo baliabiderik gehitu. Baten batek pentsa dezake: konfinamenduak ezustean harrapatu gintuen. Ikasturte berrian hobeto egingo dira gauzak, aurreikusiz tele-irakaskuntzan orduak sartu beharko direla behin baino gehiagotan. Ba ez: administrazioak ez du beharrik ikusi adibidez ikastetxeetan gutxienez aholkulari teknologiko bat jartzeko, nahiz eta irakaskuntza digitala, esan bezala, eguneroko ogia izango den (eta izaten ari den).

Badirudi soluzio errazena eta merkeena aukeratu duela administrazioak: inbertitu beharrean hezkuntzarako azpiegitura teknologiko propio eta publikoan, enpresa pribatuen esku geratzen

ari dira bai ikastetxeetako azpiegitura teknologikoa, bai hezkuntzara bideratutako zerbitzu teknologikoak. Eta horri deitzen zaio berrikuntzaz moztutako pribatizazioa. Multinazionalak diru asko inbertitzen ari dira hezkuntza zerbitzuak garatzen eta eskaintzen. Altruismoagatik? Ez, interesak dituztelako eta hezkuntza eremu erakargarria bihurtu delako negozioa egiteko, eta gainera konkistatzen erraza da, ateak zabalik dituztelako. Kontua da etorkizunera begira arriskutsua dela egiten ari garen bidea, enpresa pribatuen helburua ez delako ikaskuntza eta irakaskuntza hobetzea, dirua irabaztea baizik.

Baina hasieran esaten genuen, administrazioak bakarrik ez, ikastetxeek ere askotan alfonbra gorria jartzen diete multinazionalari.

Zergatik? Batetik dago administrazioari lotutako arazoia: baliabide falta. Eskoletan sarri hitz egiten da IKT arduradunaz, baina figura hori ez da existitzen. Ez dago IKT arduradunik ikastetxean, ez dago horretara bideratutako ordurik. Ez dago sistematizatuta ikastetxe guztietan gutxienez pertsona bat egongo dela teknologiaz arduratuko dena: teknologiaren arlo teknikoaz baina baita arlo pedagogikoaz ere. Eta esan bezala, bizi ditugun garaioan, eta etorkizunera begira ere, ezinbesteko figura dirudi. Baina horrelakorik ez dagoenez, borondate kontua izaten da: ikastetxe batean baldin badago norbait gaia kontrolatzen duena, orduak sartzeko prest dagoena, gainerakoak formatzeko prest, kontzientziario lan bat egiteko prest... bikain; baina ez badago, errazena da ez lanik ez arazorik ematen ez duen zerbitzuen alde egitea eta kito.

Horregatik izan du halako arrakasta Googlek eskoletan: Googlek ditu chromebookak eta hezkuntzara propio bideratutako pakete oso bat: "Google G Suite for Education". Erabilterraza da, eroso, klaseak emateko aplikazio erakargarriak ditu, doako aplikazioak dira, artxiiboak gordetzeko hodei handi bat ere eskaintzen du mantendu behar ez dena, ez du lanik ematen...

Eta beraz, logikoa da irakasle askok horren aldeko hautua egitea. Logikoa da, ez dagoelako kritikotasunik arlo honetan. Curriculumaren beste arloetan (dela generoa, dela elikadura, ingurumena...) hezkuntza oso kritikoa den bezala, badirudi teknologia neutrala dela, eta berdin duela software libre bat erabili, Google erabili edo Windows aukeratu. Eta logika horren arabera hezten ari gara ikasleak ere, azpiegitura horren atzean boterea ez balego bezala, interesak ez baleude bezala, eta egon badaude interesak. Eta hezkuntzak beti izan behar du kritikoa, ezin du kritikoa izan eremu guztietan, baina eremu teknologikoan beste alde batera begiratu.

Multinazionalak dira ikasleei irakasten ari direnak, edo beste era batera esanda, multinazionalen bidez ikasten dute. Eta horrela, enpresa hauek ari dira beraien produktuentzako bezeroak sortzen, etorkizuneko kontsumitzaileak, Googlekiko eta multinazional pribatuekiko menpekotasuna ari dira bultzatzen txikitatik. "Ekoitzi, kontsumitu, saldu zure burua", hori ari dira txikitatik ikasten.

Eta bide batez, multinazionalak ari dira negozio itzela egiten, ikasleen datu agregatuak beste enpresa batzuei salduz etekina ateratzen dutelako, datu oso interesgarriak marketinerako, publizitaterako, jokabideak lantzen dituzten enpresa eta erakundeentzako... Ez dugu ahaztu behar Google kapaza dela monitorizatzeko adibidez haurrak fisikoki non dauden (geolokalizazioaren bidez), zein web bisitatzen dituzten, zer bilatzen duten interneten, Youtuben zer ikusten duten, euren kontaktuak zein diren, ze ahots grabazio bidaltzen dituzten, etabar, etabar.

Eta horri gehitu behar diogu bertako ezagutza ari garela multinazionalen esku uzten, AEBetan dauden zerbitzarietara bidaltzen dugula eta han gordetzen dutela hemengo informazioa eta ezagutza. Hori da boterea esku pribatutan uztea, eta burujabetza galtzea edo gure burujabetzari uko egitea, bete-betean.

Googleen hezkuntzarako “G Suite” paketeak 90 milioi pertsonak erabiltzen dute munduan. Eta hezkuntzan bezala, beste arloetan ere kontrol teknologikoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta etekin ekonomiko handiagoa lortzen du Googlek. 2020ko lehenengo hiruhilekoan, 6.800 milioi dolar irabazi zituen Googlek, eta Microsoftek 10.800 milioi dolar. Noski, pandemiak on egiten die, inbertsioak handitu dituzte etekinak ere handitu dituztelako eta aurreikuspenak direlako gero eta diru gehiago egitea. Zehazki hezkuntzan zentratuta, hurrengo pausoa omen da aliantzak sortzea teknologia enpresa handien eta unibertsitateen artean. Irudikatu dezakegu aliantza horiek zein eragin izan dezaketen lan munduari begira eta etorkizunean eraiki nahi dugun munduari begira. Mundu mailako jokaldia da, eta Euskal Herria bete-betean dago barruan. Adibide sinboliko bat: Steilas sindikatuak salatu du ia Europa osoan 14-16 urte dela gomendatzen den adina Gmail posta irekitzeko, eta gurean 10 urterekin edo gutxiagorekin zabaldu ohi diegula kontua haurrei. Ez dago kontzientziario nahikorik gai honetan.

Hezkuntza munduko panoramaren laburpen hau apur bat positiboago bukatzeko, bi aipamen egin nahiko nituzke: bata pandemiari lotuta, tele-irakaskuntzara egin dugun jauziak gauza on batzuk ere ekarri dituelako. Multinazional teknologikoen boterea haziz joan da, bai, baina beste neurri batean balio izan du baita ere kontzientzia hartzeko. Azken finean hezkuntza mundua gehiago digitalizatu da, gaitasun digitalak gehiago landu dira, eta hainbat irakaslek adibidez Moodle sistema librea lehenengo aldiz ezagutu dute klaseak emateko, edo Jitsi software librea zeinek ez du erabili bideo-konferentzietarako... Alternatibak ezagutzeko balio izan du, hein batean. Ea soka horri tira egiten jarraitzeko gai garen.

Eta bigarren aipamena: badirela ikastetxeak korrontearen aurka ari direnak, arlo honetan kontzientzia dutenak eta software librearen aldeko bidea egiten ari direnak. Arazoa da askotan ez dugula elkarren lanaren berri eta esperientzia hauek ez direla beste ikastetxe batzuekin konpartitzen. Horregatik da hain inportantea orain Peiok emango duen hitzaldia, Elgoibarko Makina Erreminta Institutuan egiten dutenari buruz, eredu positiboak ezagutzera ematea funtsezkoa delako erreferenteak izateko eta beste batzuk ere bide horretara batu daitezten.